

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mariasun Elozegi Kortadi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Sarroeta kaleko Aingeru etxean jaio zen, Martuteneko eremu hori Altza herriko parte zen garaian. Zortzi senidetan nagusiena izanik, etxeko kargu egitea egokitu zitzaion. 11 urte arte ibili zen eskolan, lehenengo eskola txikian eta gero mojekin, dena erdaraz. 19 urterekin goma fabrikan hasi zen lanean. Handik denbora batera moja sartu nahi izan zuen, baina ez zitzaion gustatu, eta segituan irten zen. Goma fabrikara itzuli zen. Ahizpa “pantalonera” zen, eta harekin galtzak josten ere ibili zen, etxean. Ezkongabea da.

Zintak

DON-038

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-19
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Aitak harrobian lana

- **Erref:** DON-038/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Mariasunen aitak etxe ondoko harrobian egiten zuen lana. Nola egiten zuten lana kontatzen du. Bost-sei lagunek egiten zuten lan harrobian.

2. Arropa garbiketa, ura eta argia

- **Erref:** DON-038/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Mariasun zortzi senidetan nagusia izanik, etxeko lanetan lagundu behar izaten zuen. Erriean garbitzen zituen arropak. Etxean bazuten ura; inguruko beste etxeetakoak euren etxera joaten ziren ur bila. Argia gauez edukitzen zuten soilik.

3. Angulatara aitarekin

- **Erref:** DON-038/007
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:07:09. **Bukatu:** 00:07:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Erriean angulak biltzen ibiltzen aitarekin. Gauez joaten ziren sare luze bat eta bi farolarekin.

4. Inguruko baserriak eta paisaia

- **Erref:** DON-038/009
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Auzoko hainbat baserri aipatzen ditu: Tolazar, Artolategi, Katalintxo, Lazunene, Elenategi... Jende gutxi bizi zen Altzako inguru horretan. Pasaia egungoarekin alderatuta oso ezberdina zen: sagastiak, baratzeak... Baserritik bizi zen bertako jendea.

5. Bretxara, tranbian

- **Erref:** DON-038/010
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Mariasunen ama Bretxako azokara joaten zen baserriko jeneroa saltzera. Tranbian joaten zen kalera. Etxe ondotik igarotzen zen tranbia.

6. Auzo-eskolan eta mojetan ikasia

- **Erref:** DON-038/011
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskola garaiko kontuak. Aingeru Goikok auzo-eskolan ibili zen aurrena; neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten han, eta gaztelaniaz ikasten zuten. Gero, hiru urte egin zituen mojetan. 11 urterekin utzi zituen ikasketak.

7. Aitak erdara jakin ez

- **Erref:** DON-038/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:47. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Mariasunen aitak ez zekien erdararik; behinola bizitako gertaera bat kontatzen du.

8. Hiru gizon kupel batean gordeta

- **Erref:** DON-038/013
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra garaiko oroitzapenak. 11 urte zituen orduan Mariasunek. Santio menditik eta Ametsa gainetik tiroka aritzen zirela gogoratzen du. Tiroketak izaten zirenean, atzeko baserriko ukuiluan gordetzen ziren. Mariasunen aita eta beste bi gizon kupel handi baten barnea egon ziren ezkutatuta. "Gorriekin" zer harreman zuten kontatzen du. Auzoko gizon bat makila batean zapi zuri bat jarrita joaten omen zen etxera, tiroek jo ez zezaten. Erreketeak Astigarraga aldetik sartu zirela dio. Jendeak ihes egin zuen Astigarragara, Bilbora...</p>

Transkripzioa

-Eta gerra etorri zanian zu oso ondiokan txikiya o?

-Hamaika urte.

-Hamaika urte neskatiilla bat. Ta ze gogoratzen dezu, gogoratzen dezu zerbait?

-Bai, Santiomenditikan tiroka. Gero Ametzen gaiñetikan'e tiroka.

-Eta zuek izkutuan?

-Gu ba gordetzen giñan ba ukuilluan. Gu etxeko ukuilluan ez atzeko etxian ukuilluan gordetzen giñan, eta han eman... Oso ondo portatu zian guekin "gorriyak". Ekartzen ziun txoixua ta ogiya. Esnia nola dakanai, baiño aitag, ta beste bi gizon kupelan barrenen sartuta eondu zian.

-A bai e? Bakoitza kupel baten ala?

-Ez ez, hirurak kupel batian.

-Hirurak, orduan kupela haundiya izango zan?

-Bai. Kupela haundiya. Eta ya pasatzen zienian ordun abixatzea juten giñan zergatikan bestela sagarduen... eztakit nola esan.

-Bitza edo?

-Ez, "el gas que tiene eso". "Por eso íbamos y entonces salían ellos". Y Ramon Exquerra, hoi makil luze batekin eta puntan trapu txuri batekin, hua, han tiruak ez jotzeko bestela Ametza gaiñetikan tirua botatze ziyon harri.

-Eta hori etxera juteko, banderakin juten zan orduan?

-[...] Ramon Exquerra.

-Ta hemen asko iraun zun tiroteo horrek ala?

-Ez, ez, gutxi.

-Gutxi, baina beldurra ikaragarriya ez?

-Bildurra aber, gero etorri zian "reketiak" o dana dalako hoyek etorri zian.

-Eta nundik sartu zian, ze aldetatik etorri zian edo?

-Astiarraa aldetik etorri zian.

-Eta asko zian?

-Ez dakit, ez dizut esango zenbat baiño bastante bai, bazian.

-Ta jende asko jun zan, karo hemen ez zan jende asko bizi baiña jende asko jun zan kanpora ihes eginda eo?

-Atiarraa aldea hemendikan Astiarraa aldea jun zian, ta geo bestiak Donosti aldea're bai, jun zian osea, Bilbao aldea, baiño gero etorri zian.

9. Martutene-Loiolako guardia

- **Erref:** DON-038/015
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Mariasunen aita Martutene-Loiola eremuan guardia egitera derrigortu zuten. Egunez harrobian egiten zuen lan, eta gauez, guardia egitera joan behar izaten zuen. Behin, ondoezik zegoelako ez zen zaintza egitera joan, eta 25 pezetako isuna jarri zioten.</p>

10. Osabak ekarritako irina

- **Erref:** DON-038/016
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean nola elikatzen ziren. Osaba bat morroi zegoen errota batean, eta taloa egiteko irina ekartzen zien. Taloa, esnea, aza... jan ohi zituzten. Ama zaku patata batekin etxeratu zenekoa kontatzen du. Jendea ogiarekin estraperloan ibiltzen zen: "trenean etorri eta ogia botatzen zuten, eta jendea zain egoten zen zakuak hartzeko". Ama Donostiara joaten zenean arraina erosten zuen: txitxarroa eta bakailoa ohikoak izaten ziren.</p>

11. Bretxara, amonarekin

- **Erref:** DON-038/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:20:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Donostiako Bretxako azokara joaten zen amonari plazako salmentan laguntzera. Baserritar asko biltzen zen Bretxan: Astigarraga aldetik tranbia baserritarrez beteta joaten omen zen.

12. Taberna bakarra eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-038/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Erosketak Donostian egiten behar izaten zituzten; izan ere, auzoan ez zegoen dendarik. Taberna bakarra zegoen; Odriozola jatetxea. Sagartegiak baziren auzoan: sagardotegiko giroa, jatekoa... aipatzen ditu. Umeek zizarra edan ohi zuten: sagardo egin berria, gozo-gozoa.

13. Goma lantegia

- **Erref:** DON-038/020
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

19 urterekin Sarrieta pasealekuko goma lantegian hasi zen lanean Mariasun. Abarkak, belakiak ("esponjak") eta zigiluak bustitzeko belakiak egiten ziren lantegi horretan. 15-16 langilek egiten zuten lan bertan, eta lan guztia eskuz egin behar izaten zen. Astean, 40 pezeta irabazten zituen. Hiru urte egin zituen lantegi horretan lanean Mariasunek.

Transkripzioa

-Modista zeon aldameneko etxian bizi zan?
-Bai ta gero fabrika, hemeretzi urtekin fabrika lanian.
-Ze fabrika?
-"Fabrica de gomas".
-Eta hori nun zeon?
-Hemen ixkiñan bertan. Paseo de Sarrieta uain "numero dos".
-Eta hor gomak, zer zertako?
-Iten zian albarkak, esponjak eta "mojasillos" o dalaku hoiyek. Ta hoi dena guaiziakin dena, oain makinak daude baiño hor dena guaiziakin iten genun.
-Dana eskuz orduan.
-Dena eskuz, bai.
-Eta zenbat langille ziñeten han, asko?
-Bai, hamabost hamasei izate genitun.
-Dena emakumiak ala?
-Gizonak eta emakumiak. Albarkakin ta bian, gizonak, eta esponjakin da haiyek, goiyen, emakumiak.
-Eta orduan gutxi, jorjala txikia izango zan?
-Bai, kuarenta. Berrogei pezta.
-Berrogei pezta?
-Astian.
-Astian? Eta zenbat denbora in zendun han lanian?
-Hor lanian nik in nun, hiru bat urte? Hiru bat urte, bai.

14. Moja izateko bokazioa

- **Erref:** DON-038/021
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:25:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Goma lantegian hiru urtez lanean aritu eta gero, moja izateko bokazioari kasu egin eta auzoko komentu batean sartu zen Mariasun. Hiru hilabete egin zituen komentuan (zailtasunak, diziplina... aipatzen ditu), eta etxera bueltatu zen. Komentutik atera, eta beste bi urtez aritu zen goma lantegian lanean.

15. Ahizpa Ameriketara

- **Erref:** DON-038/022
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:25:31. **Bukatu:** 00:26:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Mariasunen ahizpa "pantalonera" (prakagina) zen, eta harekin hasi zen lanean etxean. Gero, ahizpa Ameriketara joan zen lanera. Donostiako apaiz baten bidez 10 lagun joan ziren Ameriketara; aukera izanagatik, Mariasunek ez zuen joan nahi. Etxean laguntzen garatu zen.

16. Aitaren osasuna

- **Erref:** DON-038/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:26:23. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak

Laburpena:

<p>Mariasunen aita beti ondoezik ibiltzen zen, reuma baitzuen. Sendabelarra: plantina belarra erabiltzen zuten kolpeak eta sendatzeko. Altzako medikua zaldian ibili ohi zen batetik bestera.</p>

Transkripzioa

-Aita beti ondoezik ibiltzen zan. Reumakin.

-Reumakin?

-Oyian Jesus, zenbat bier! Hillebete oso osuan oaingo gauzak ezta ez zian ordun.

-Eta belarrekin eta enplastuak eta holakorik iten zan?

-Ombre! Heridak eta beak dena plantiña belarrakin eta hola...

-Plantiña bedarra?

-Bai, harren zea txukatu hua eta hua jartzen zun harrobiko kolpiakin ta guzikin. Harrekin, oain bezelako pomadak eta gauzak? Meikuik ez zan ordun! Ezta ez seguridade sozial eta ezer ez.

-Eta mediku arazon bat euki ezkeru orduan medikura ez zan juten? Medikua etxera edo?

-Bai, ordun hasi zan Astiarrako meiku bat, Don Jose Almandoz. Bestela etortzen zan zaldizka Altzatik, meikua. Asieske kontu atea hortikan aber.

17. Mesedetako jaiak

- **Erref:** DON-038/026
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Irailaren 24an Mesedetako Ama Birjinaren jaia ospatzen zuten. Altxatik txistulariak joaten ziren; txistularien atzetik Ubara joaten ziren, han meza entzuten zuten... Mariasunek ez du dantzarako zaletasunik izan.</p>

18. "Madrid pequeño"

- **Erref:** DON-038/027
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:31:22. **Bukatu:** 00:32:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Lehen, Madrilgo jende (militarrak...) asko egoten zen Martutenen, eta "Madrid pequeño" esaten omen zioten.

19. Konfesioak, otoitzak...

- **Erref:** DON-038/031
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:34:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Astean behin joan behar izaten zen konfesatzeran. Apaiza Don Francisco Aranburu zen. Apaiza euskalduna izanagatik, otoitzak, mezak... erdaraz izaten ziren. Etxean, aiton-amonek eta gurasoek, euskaraz errezatzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta hemen gero kapilla etortzen giñan. Ya "acción católica" jarri zan, Buen Pastorretikan etortzen zan [...], eta harrekin. Parrokiya in bitartian.

-Eta konfesatu eta iten ziñeten?

-Karo!

-Hori ze, jarrita zeon zenbat?

-Astian behin ordun, Jesus Maria!

-Astian behin?

-Astian behin bai, beti beti iual izateko.

-Hainbeste pekatu zuek bazenuten ala? Astian behin konfesatzeko?

-"A decirles mismas tonterías".

-Eta apaiza nor zan, konfesatzen zuna?

-Don Francisco Aranburu.

-Ta hori hemengua zan?

-Ez. Buen Pastorko zan. Handikan etortzen zan.

-Eta euskalduna?

-Bai, hua euskalduna zan baiño dena erderaz.

-Dena erderaz eta otoitzak eta dena erderaz e?

-Dena, dena, dena, erderaz.

-'Aitaguria' ta euskeraz ez zenuten... toki batzutan erderaz eskola ta

erderaz izan arren otoitzak-eta euskeraz egiten zuten?
-Ez ez ez, dena, dena erderaz.
-Dena erderaz.
-Ta kolejiyuan'e monjetan dena erderaz. Euskeraz ezertxo're ez. Nik ikasi nun 'aitaguria' aitonangandik.
-Orduan aitonak euskaraz errezatzen zun?
-Karo, aitonak eta aita eta amak dena euskeraz. Erderaz...
-Orduan aldaketak gerrakin, ez? Aldatu zan asko?
-Dena. Den-dena. "Pues sí", bai.

20. Ahizpa, "pantalonera"

- **Erref:** DON-038/035
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:36:54. **Bukatu:** 00:38:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Mariasunen ahizpa "pantalonera" (prakagina) zen, eta harekin hasi zen lanean etxean. Donostiako Flores sastrearentzat egiten zuten lana. Ahizpa jostun ona zen.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dezu "pantalonera" ibili ziñela?
-Nere ahizpa.
-Zure ahizpakin ikasi zenun ta gero ze iten zenuten enkarguz josi? Kanporako?
-Bai, kanporako, nere ahizpak.
-Eta zeñek erosten zun? Inguruko etxetakuak ala [...]?
-Ez, ez, Donostiako iten zun lana.
-Denda baterako?
-Ez, esto sastre batentzat.
-Sastre batentzat. Eta galtzak zer zian dotoriak ala maoizko langillien ta zeak ero?
-Ez, ez ez. Trajiak dena.
-Trajiak. Orduan e?
-Ondo, ondo. Oso, nere ahizpa dalako ez baiño, baakit ondo josten zula.
-Eta zuk laguntzen zeniyon?
-Bai.
-Eta oihalak-eta Donostian erositakuak zian?
-Karo, dena.
-Orduan josi ta gero berriz bueltan? Ta nola bidaltzen, zuek eramaten zenuten?
-Nik, nik eramaten nitun.
-Zu juten ziñen eramatera, sastriana. Ta ze sastre zan?
-Aber, ze izena zun harrek, Flores.
-Flores?
-Bai.
-A hori ezaguna...
-E zean, "en la plaza Easo".
-Easo?
-Urtiak e. Hua gizon hua...
-Eta asko, sastre asko zeon? Garai hartan sastre asko?

-Ez dakit.
-Jostunak bai, asko?
-Jostunak bai hemen [...] izaten zan baiño...
-Emakume askok ikasten zun josten.
-Ordun eske beste gauzik ez zan. Jostea ta pelukeia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com